

Badakigu datu objektiboek eta egiazko gertaerek ez dituztela aldatzen gure erabakien gidari diren eskema mentalak. **Gertaera eta datuekin batera, haien esparrua azaldu behar da, bai eta ikuspegi alternatibo bat ere.**

Ikuspegia aldatzeak ez du mundua aldatzen, baina ikuspuntua mugitzea ezinbestekoa da, bestelako mundu bat posible dela ikusteko.



Gure solaskidea aintzat hartu behar dugu, eta esaten duguna ziurtasunez esan. Kontua ez da inori errietan egitea, ez eta iritzia modu autoritarioan inposatzea ere.

Interesa piztu nahi baduzu,

interesa erakutsi, ez egin interesgarriarena.



Norbaiten iritzia aldatzeko, modu bakarra dago: bere jarrerari buruz hausnarrarazi behar diozu. **Haren baieztapenetan zalantzak sartzea beti da irtenbide ona.**

Ez galdetu zergatik, baizik eta galde ezazu: nola konponduko zenuke zuk egoera hau?



Kontuz besteen gaintik nagusitasun morala erakusteko tentazioarekin: arbuioa besterik ez duzu lortuko.

Elkarren arteko abiapuntu komuna aurkitu behar da, besteeikiko interesa eta enpatia pizteko.

